

Asisko gutuna

2023ko uztaila

1. printzipioa. Eguneroko bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

177. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asko pentsatu da Jainkoaz eta bere gauzez. Baina gehienetan gure eskema mental, filosofiko eta kulturaletatik egin dugu. Eta berari hitz bat esaten uzten badiogu?

Gogoetarako gaia

Zer nolako Jainkoa Jesusengan

Guk, gizakiok, beti izan dugu Jaungoikoa gure behar eta gure bizi eskemetatik pentsatu eta bizitzeko arriskua. Hala ere, Israelgo herriak, bere historian zehar, Jainkoa era berezian bizitzen ikasi du; Jainkoa berarekin harremanetan jartzea erabaki duen aske eta maitasunezko norbait da. Baina Nazaretoko Jesus, juduen tradizio jatorrekoa izanik, Jainkoa bere bizitzarekin eta lehen inork bizi izan ez zuen bezala erakutsi du: Aita bezala, Aita maitea.

Ez gara pentsaera batez ari, Jaungoikoa bizitzeko moduz baizik; eta, gainera, horrek dakarren harreman-estilo bereziarekin. Jesus bere bizitzan ikasi du nor den Jainkoa berarentzat eta bere senide garen gizon-emakumeentzat. Harreman mota hau hain da berezia, non gure erlijio, moral, doktrina eta abarren kategoria guztiak hausten dituen. Jesus eta honek Jainko-Aitarekin duen harreman pertsonala da gure

fedearen berri nagusia. Itun Berria guztia nobedade honetaz bete dago. Ebanjelioak Jesusen bizitza eta bertan agertzen den Jaungoikoa era askotara kontatzen duten narrazioak dira; giza-kientzat eta, batez ere, txiki eta pobreenak direnentzat Aita izan nahi duen Jainkoa.

Ez dugu inoiz asmatuko, inondik ere, Bera-
rengan oparitzen zaigun misterioa eta bizitzak emango digun iraulketa Jesusengan eskaintzen zaigun misteriora irekitzen bagara. Izan ere, hain originala den Jainko honen misteriora irekitzen den edonor markatua dago betiko.

Jesus proposatzen digun bidean erabakitaz besterik ez dagokigu. Horrela, Jesus bere bizitzan eta bere bizitzaz erakusten digun Jainko hain bizi eta ezohizkoarekin erlazionatzen ikasi ahal izango dugu, aurrez aurre eta pertsonalki. Azkenean, honako hau esango dugu: A ze Jainkoa ematen zaigun Jesusengan!

Ebanjelio pasartea: Lk 15,1-7

Zergalari eta bekatari guztiak Jesusengana bildu ohi ziren hari entzuteran, eta fariseuak eta lege-
-maisua marmarrean ari ziren esanez: «Horrek harrera ona egiten die bekatari, baita beraiekin jan ere!» Jesus parabola hau esan zien: «Zuetako nor, ehun ardi izan eta bat galtzen bazaio, ez da, beste laurogeita hemeretziak larrean utzirik, galduaren bila joaten aurkitu arte? Eta aurkitzen duenean, lepoan hartzen du poz-
-pozik eta, etxeratzean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Egin festa nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia!” Egia esan, Jainkoak ere poz handiagoa hartzen du bihotz-berritzen den bekatari batengatik, bihotz-berritu beharrik ez duten laurogeita hemeretzi zintzoengatik baino.

Frantziskotar espiritueltasuna

Zu zara santa, Jainko Jan bakarra, mirariak egiten dituzuna. Zu zara indartsua, zu zara handia, zu zara goi-goikoa, zu zara errege ahalguztiduna, zu Aita santua, zeru-lurren erregea.

Zu zara hirukoitza eta bakarra, Jauna jainkoen Jainkoa, zu zara ona, on guztia, on gorena, Jainko Jaun bizi eta egiazkoa. Zu zara maitasuna, karitatea; zu zara jakinduria, zu zara apaltasuna, zu zara pazientzia, zu zara edertasuna, zu zara otzantasuna, zu zara segurantza, zu zara atsedena, zu zara poza, zu zara gure itxaropen eta alaitasuna, zu zara justizia, zu zara neurritasuna, zu zara gure aberastasun guztia asebetean.

Zu zara edertasuna, zu zara otzantasuna, zu zara babeslea, zu zara gure zaindari eta defendatzaila, zu zara sendotasuna, zu zara freskagarria. Zu zara gure itxaropena, zu zara gure fedea, zu zara gure karitatea, zu zara gure gozotasun guztia, zu zara gure betiko bizia, Jaun handi eta miragarri, Jainko ahalguztidun Salbatzaile errukiorra. (JaGor 1-6)

Otoitza

Kontuan hartzen ez bazaitut, ezerek ez dit axola.

Huts egiten baduzu, nire bidea galtzen dut.

Zu ezean nire biziak ez du norabiderik,

baina iristen zara eta bakea egiten da nigan.

Zugan sinesten dut, heriotzan Bizia jartzen duzula,

zure argian, nire ilunpeez harantzago,

zure emateko moduan, eskakizunik gabe

zure Hitzean, zauri bakoitza sendatzen duena.

Zugan sinesten dut, bizilekurik gabeko erromesa

egiazko eta adiskidetasunezko profeta

errukiaren aurpegi bizia

goseak asetzen dituen jaki gozo.

Zu zaudenean existentzia irauli egiten duzu,

maitasuna zeregina da eta premiazkoa

justizia era berrian bizi da

samurtasunak indarkeria azpiratzen du.

Horregatik sinesten dut zugan, Betiereko Jauna,

horregatik sinesten dut zugan, Jesus hurbila,

lagun, etxe, estalpe eta esku izateagatik,

presentzia, ahotsa eta kantu ona izateagatik.

Gutuneko azken hitzak

Orduan, Felipek esan zion: –Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta aski dugu. Jesusek erantzun: –Honenbeste denbora zuekin, Felipe, eta ez nauzu ezagutzen? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du.

(Jn 14,8-9)

2023ko ekaineko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1 Mt 8, 5-17

8 Mt 9,14-17

15 Mt 10, 24-33

22 Jn 20,1.11-18

29 Lk 10,38-42

2 Mt 10, 37-42

9 Mt 11 25-30

16 Mt 13, 1-23

23 Mt 13, 24-43

30 Mt 13, 44-52

3 Jn 20, 24-29

10 Mt 9,18-26

17 Mt 10,34-11,1

24 Mt 12, 38-42

31 Mt 13,31-35

4 Mt 8, 23-27

11 Mt 19, 27-29

18 Mt 11, 20-24

25 Mt 20, 20-28

5 Mt 8, 28-34

12 Mt 10,1-7

19 Mt 11, 25-27

26 Mt 13,1-9

6 Mt 9, 1-8

13 Mt 10,7-15

20 Mt 11,28-30

27 Mt 13, 10-17

7 Mt 9, 9-13

14 Mt 10, 16-23

21 Mt 12, 1-8

28 Mt 13, 18-23

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Uztaileko otoitza hilaren
27ean izango da.